



Langai

1991 ko APIRILA

LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK

ZENB. 9

Batasun Nazionala Erabakiak

1991.-rako Negoziazio Kolektiboa

Zbkia

ZA
BAL
TZEN

TXT10012
DOKUMENTAZIO
ZENTROA

Batasun Nazionala Erabakiak

**1991.-rako
Negoziazio
Kolektiboa**

Langile Abertzaleen Batzordeak

1991.-rako NEGOZIOAZIO KOLEKTIBOA

SARRERA

1.- EGOERA EKONOMIKOA

- 1.1.- Nazioartekoa
- 1.2.- Estatu espaniarra
- 1.3.- Hego Euskalherria

2.- KONTZERTAZIOA-LPS

- 2.1.- Kokapen orokorra
- 2.2.- Kontzertazioaren balorapena
- 2.3.- Bigarren fasea

3.- 1990.eko NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN AZTERKETA

- 3.1.- Ingurunea
- 3.2.- Garapena eta estrategiak
- 3.3.- Azken balorazioa

4.- NORGEHIAGOKO PAKTUA

5.- 1991.eko AURREKONTUA

6.- CCOO-UGT EKIMEN BATASUNA

7.- 1991.eko NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA

7.1.- Helburu orokorrak

7.2.- 1991.eko Negozioazio Kolektiboaren plataforma

7.3.- Administrazio mailan lehentasuna duten edukiak

7.4.- Negoziazio Kolektiboan LAB dagoen sektoreak

7.5.- Herrialde arteko sektorial mailako koordinazioa

7.6.- N. Kolektiboaren jarraipenerako ardurak eta erabaki-markuak

7.7.- Betebehar murrizteko hitzarmenak

ERANSKINA: I.- EMAKUME

II.- EUSKARA

SARRERA

Ez da bat ere zalantzarik, guk bultzatzen dugun sindikalismoaren adierazpen praktikorako elementu klabeetako bat Negoziazio Kolektiboa denik. Beraren bidez gauzatzen dugu gure filosofia sindikala; bertan isladatzen da indarrean den eredu soziolari buruz eta erdietsi nahi dugun eredu soziolaren proiektuari buruz dugun jarrera. Azken batez, negoziozko kolektiboa azalean eta kanpotik islada-tzen dena (zifrak, porzentaiak, ordutegiak,...) baina areago da. Horregatik hain zuzen, gurea bezalako sindikatu batek, berehalako helburu euskal langilegoaren defentsa duena, sozietatea aldatzeko etengabeko konfrontaziorol gabe bizi baldintzak hobetzea edo sozietate justuago baterantza abiatzea ezina dela kontzientea izaki, oso konpromezu zabal hartzen du KAS Blokean sartzen aipatu aldatetaren alde bere ahaleginak emateko.

LABen ustean, langilegoa ete NAEMekiko konpromezu bikoitz hau da hain zuzen, bere iharduera garbiki baldintzatu eta mugatzen duena eta sindikalismo erreformista eta konbentzionaletik guztiz desmarkatzera behar-tzen duena.

Sindikalismo erreformista burgesiaren tresnarik prezioatuenetako bat da langilegoa lo eginarazteko, burkoikeria kontsumista eta lagunkidetasun ezaren bidean zehar eramateko, azken batez, langilegoaren ahaleginak bere probetxurako bideratzeko, makila eta zainhoriaren taktika erabiliz, sistema bera inoiz zalantzatan jar ez dadin saiatuz, sistema hau "hoberena" eta "posible bakarra" bezala aurkeztu duelarik.

Sindikalismo erreformistak egunero erakusten digu, indarrean den eredu sozialari funtsezko aldakuntzak probokatzeko duen gaitasun falta absolutoa. LAB sartzen den laquetan gure lanak, gure jarrera sindikalak, aire fresko-bolada bat suposatu behar du, sindikalismo erreformistaren monotonia entregista eta, zoritxarrez maiz, usteldutik bereiztean, langilegoarengan bere interesen alde eta Euskal Herriaren askapen nazional eta sozilaren alde tinko burrukatzeko ilusio berria emanen diona.

Gure ahaleginak bikoiztu eta gure prestakuntza areagotu behar dugula esan nahi du horrek. Gure sindikalismoak partehartzailea, aglutinakorra, eta, beraz, indar metakorra izan behar du. Langilegoaren baitan zoritxarrez den zatiketa -erreforma Politikoaren zerbitzaileek apropos sorterazitakoa- izan arren, gure lanak langile guztien batasuna lortu behar du, gure postulado teorikoei uko egin gabel, noski.

Klase interesak jokatzen diren lekuan egon behar izanen du LAB-ek, euskal langilegoaren etorkizuna hipotekatzan ez duten negoziozko guztietan parte hartuz, imaginazioa garatu eta ahaleginak parra parra gastatu; langilegoari "mugitzen" irakatsi, burgesiak lekuz aldatzen saiatu edo lortu aurretik; langilegoak lorpen sozial eta politikoen protagonista nagusia izaten utzilo duten kontrol eta kudeaketa elementuak bere esku izanen dituen sozietate baterako bideratzea erreztan duten elementuak sartu negoziozko kolektiboan.

1. EGOERA SOZIO-EKONOMIKOA

1.1.- Nazioartekoa

Lehenengo begiradan, mundua ezaigarri politiko, ekonomiko eta sozial ezberdinak izanen dituen munduko orden berri batera joan daitezkeen sakoneko aldaketan sartua dagoela dirudi.

Ekialdeko prozesu haundiak (kontrolatuak edo ez), Alemania berri/zaharraren birsortzea eta Golkoko egungo krisialdia prozesuak azeleratzen ari dira, eta lehenagoko krisi ekonomikoak hertsu gabe, egoeraren okertzea atzematen da, iadanik munduko ekonomian desegokitzeak eragiten ari dena. Sistema domina-tzailearen beharrezko egokitzeak, berri ere, langileei zuzenean eragiten dien eremuan planteatuko dira: hemen, munduko ekonomia sistemaren erdigune eta erpinean.

Funtsezko arrazoia sistema kapitalistak, orain dela dekada batzuek sakoneko krisian

sartua, petroleoaren prezioaren kontrolaren arazoa (USA eta Mendebaldearen interbentzioa Golkoan) behin betikoz konpontzean datza, dauzkaten arazoei besterik ez eranstearren, lehengaiak produzitzen dituzten herrien hustirakuntza bidez eredia mantenduz.

Krisia areagotuko dela erran beharra dago, kapitalisten ikuspegitik krudoen gorakadak, etekinen tasaren kaltean, produkzio kostoen gorakada bait dakar. Egoera horrela, enpresarien erreakzioa, nahitaez, produkzioa et enplegua gutxitzearena da. Suposatzea da, egoera hau iraupen luzekoa izatea, sistemak bere piezak nazioartean egokitzen dituen bitartean.

Asumitzen hasi behar da, hipotesi gisa, gogortasunez, posiblea dela azkeneko urteotan eta desideologizazio (biziraupena) prozesu baten arabera, munduko langilegoaren baitan eta zehatzago Mendebaldean sistemaren ideologizazio burruka bat ematea, Ertamerikan esate baterako, eman daitezkeen baldintza guztiz ezberdinak direla eta, eta baita ere, sindikalismo transformatzailearen krisi baten barruan egotea, LAB Mendebaldean aldaketa perspektibak dituzten erreferentzia sendoenetako bat delarik.

Laburbilduz, aldaketa soziolerako baldintzak zailak dira, burutzen ari diren aldaketa haundietatik datozen egoera ekonomikoen arabera.

1.2.- Estatu espainiarra: nazioarteko tes- toinguruaren ondorioak.

Akta Bakar Europearra (ABE) 1993an marxtan jartzea ekonomian eta lan merkatuan bertan garrantzizko aldaketak suposatzen ari da jadanik, bai Estatu espainiarrean bai, ondorioz, Hegoaldean, eta lehen momentu batean, merkantzien zirkulazio librearen emaitza.

Estatuko ekonomia gero eta elkarmenpekoagoa den munduko merkatuara sartzen doaneko eufemismoaz (azeleratua EEEn lehenengoko sarreraz) aldaratzen ari da, erreallitatean, estatuko ekonomia sartuta zegoela zegonekoz eta guztiz baldintza ahuletan.

Azkeneko urteotako defizit komertzial (inportazioak ken esportazioak) maila kezkarri eta gorakoak, eta 1990ko Abuztura arte petroleoaren prezio maila baxua zena zela, defizit hori hazkunde edo zuzpertzeko haundieneko momentuetan produzitzen duten ohizko desorekak adierazten ditu.

EEErekiko harreman komertzialen arloan, esportazio eta inportazioak era azeleratu batean konzentratzen ari diren lekuan, defizit nagusienak industriaren atal errankorrenetan (eraikuntz mekanikoa, makinaria elektriko eta elektronikoa, prezisio tresnak, siderometalurgia, oinarriko kimika eta transformatzailea,...) kokatzen direla egiaztatzen dugu. Merkatu honetako kuoten galera hedatua da produkzio lerro nagusietan.

Estatuan, esportazio urritzearen ondorioz sortu atzeratze ekonomiko batek areago larriagotuko du balantza komertzialeko defizit kezkarria, batez ere atzeratzeak kanpoko kapitalaren sarrera ahultzen ba du (PSOEn gobernua euskarritu den zutabe hauskorretako bat hazkunde tasa guztiz irrealak mantentzeko). Defizit hau xuritzeko eta inflazioa frenatzeko gobernu zentralak neurri murriskorak ezartzen ba ditu, harek ere indartuko du atzerantzko joera.

Estatuaren marko kezkarria osatzeko erantsi behar dugu oraindik badireak burutu gabe bireguratze prozesuak (siderurgia, untzigintza,...) eta merkatu europar bakarrean erabatera sartzea, fusio, absortzio, e.a.ren bidez enpresa birdimensionamendua bultzatzena,... eta konpetitibotasun haundiago baten bila teknologia berrien aplikazio, ziurrenik beratekin plantilla egokitze berri eta drastikoak ekarriko ditu, oso ixilak izan arren.

Gainera, Golkoko krisiak zalantza ugari sortarazten du industria sektorean, inbertsioen ondorio negatiboak ekarriko dituena, iharduera ekonomikoaren funtsezko aldagai honetara funtsean enpresari itzarobideak biltzen bait dira.

Analisis honen ondorioa da, proniostikoak bete ezkerro, estatuan garai kezkarria aurkezten dela, batez ere aldibateko enpleguak

%38ko kuota erdietsi duela eta, beronek krisialdian, sistemak kondenturiko lehenengo dela kontutan hartuz.

1.3.- Hego Euskal Herria

Orain ari dira iristen sistema ekonomikoa sartuta dagoen atzerantzko garai berriko lehenengo sintomak, Solchaga gabinetek iaz onartu zituen "hozadura" neurriek induzitutako atzerapen ondorioek agudizaturiko sintomak. Aipsatu sintomak Estatuan nabari izan bainok askozaz lehenago, euskal ekonomiak ahulezia sintomak adierazten zuten zegoeneko.

Zalantzarik ba ote da birregituratze prozesuek Hegoaldeko ekonomia errautsi dutenik, benetazko bormoldaketarik eza (iharduera ekonomikoa eta enpleguaren ordezkapena) kontutan hartuz, batez ere? Gure ekonomia 1960-1963 artean PIB delakoaren egoeraren %7,7a edukizetik, 1973-1985 artean estatuko baxuena, %0,6a edukizera jeitsi da. Eta 1975an Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroak 2gn, 3gn, 5gn eta 9gn postuak okupatzen ba zituzten, 1987an 15gn, 27gn, 9gn eta 13gnak okupatzen pasa dira, hori dena "renta per kapita disponibleari" buruz. Bertze datu errankorra da ere, 1985ean enplegu estimatua 763.800 pertsonetako izan zena, 1960ko baino txikiagoa, 1985ko poblazioa 1960koa baino haundiagoa zen, 900.000 pertsona gehiago izanik.

Gaur egun, gainera, dauden kontratuetatik %30a aldibatekoak dira, oso nabaria izanik 1990an egindakoetatik %95a aldibatekoak direla. Langabezia tasa Estatuko media baino %20an altuagoa da.

1990 urtean, erdialdean, iadanik atzeman daiteke Baskongadetan Iharduera Industrialaren Indizearen atzerapen generalizatua. Nafarroan efektu hauek txikiagoak dira, krisi ekonomikoren eragin txikiagoaren ondorioz eta Estatuko Gobernuaren herrialde honekiko izandako tratua ezberdina dela eta, arrazoi guztiz politikoak direla medio.

Aspektu negatibo hauei erantsi behar zaie birmoldaketek jarraitzen dutela, untzigintza eta

siderurgia integralearen gaineko espektatibak asaldagarriak izanik. Bestalde, AUE mar-txan jartzeak, dirudienek, merkatu estatalaren menpeko euskal enpresak kinka karrietan jar dizake, markatu estatala EEEtik etorritako kompetentzai masiboaren afluentsiaz inbaditua izanen bait da. "Golkoko krisiaren" ondorioei buruz dagokionean elementu negatibo gisa azpimarratu dezakegu gure ekonomia herri industrializatuen batz bestea baino "energi-boragoa" dela, abagaduneren menpekotasun haundia duten sektoreetan espezialdua dagoela eta produktibitatea europar nazio nagusien azpitik dagoela.

Egun euskal enpresariaren kezka nagusia, Golkoko krisiaren eragina baino gehiago, barearen ondorio induzitua da, aipatu Golkoko krisiak negatiboki eragiten duen neurriari eta honi erantsi behar izanen li-tzaioke ibilgai-luaren sektorea, herramienta makina eroslerik nagusia iragartzen ari den krisi larria-PYMES delakoak serioiski kalteturik izan daitezke. Baina haiendako, gobernuko politika erabakikorra izanen da. Beraien esanetan "*Golkoaren aitzakiaz* (interesa mota altuak, mailegu errestrizioak,...) *galerak izan ditza-gun eragiten ari dira. Politika erretriktiboak inbertsioa ezabatu dezake*".

Krisi ekonomikoa azalean jarri zuen euskal ekonomiak ohizko sektoreetatik, oinarriko defizientzia estrukturalak dituztenak, duen menpekotasuna haundiegia. Egun defizientzia garrantzitsuenetako bat errepide azpiegitura delarik, gaur egun hainbat motibo direla eta gaurkotasun haundia duena: Mediterraneoko ardatz ekonomikoren indartzeaz ados egonik, Atlantikoko ardatzean interesak defendatu ere egin behar dituzten talde ekonomikoen artean, bada burruka larbatua, PNV-PSOE burruka, Euskadirendako zigor ekonomikoren mehatxua, Frantziako Gobernuarekiko transakzioak,... Baina benetan larria dena da euskal ekonomiaren beharren ikuspegi orokor eta integratzaile batean oinarritutako azpiegitura analisirik ez izatena, eta gaurko planifikazioek ez dutela ingurua errespetatzen eta batzuz sozioalki oso erantzuna direla.

Testuinguru ekonomiko honetan ihardungu dugu heldu diren urteotan. Oraingo mar-

koa aldatzen ez den bitartean, ekonomia eta sozial mailean kompetentziarik ez izatea Lan Harremanetarako Marko Autonomoaren falta hutsune nabariena izanen dira alderdi juridiko politikoan.

2.- KONTZERTAZIOA - L.P.S.

2.1.- Kokapen orokorra

KONTZERTAZIO prozesua sindikatuak ezezkotasunez hartu du, UGT, CCOO eta Gobernu Zentralak L.P.S.aren negoziaketa zapuztua ikusten genuelako.

Azkeneko urteotan sumatu dugu sindikal-gintza erreformistak protagonismo asko galdu duela, afiliazioak gutxitu egin direla. Honek beren iraupena ere zalantzan jarri die.

Egoera hau gainditzeko itxura borrokalariz jantzi ziren, paktu sozialaren kontrako irudia hartu zuten eta langilegoaren egonezina abenduaren 14-eko Greba Orokorrean gorputzen da, azken urteotan gertatu ez zena.

89-an, PSOE eta UGT-ren arteko tirabiretan, PSOE izan zen irtenbide negoziatuaren alde ageri zena, indar faktiko eta patrono eta sindikatuen arteko negoziaketaren aldekoa.

Azpinarratu behar da abenduaren 14-ean gertatutakoaren ondorioen aurrean PSOEn nahia izan dela era honetako irtenbidea bilatzea. Serehala azaldu zuten erreformistek ez zela GREBA izan, GELDIALDIA baizik, gobernuaren aurkako esanahiak erakusten zituzten bi kontzeptuak ikusirik. Euskadin garbi gelditu zen Gobernuaren politika sozio-ekonomikoaren aurkako GREBA izan zela.

Horrela bada finkatzen da paktu soziala, zeinek alde batetik PSOE bizkortu zuen (irudi negoziatzaile, langileekiko kezka,...) eta bestetik UGT eta CCOO sindikatuak aurkeztu zituen Gobernu eta Patronalarekiko elkarriketatzaile bakar bezala, hauteskunde sindika-

lak hurbil zeudelarik langileen aurrean erreferentzi bakartzat joaz.

Ekonomia espainiarri buruz esan daiteke 80.ko 2. hamarkadako igoeran sartu dela.

EEE-ko estatuekin konparatuz espainiako ekonomiberreskuraketa beranduago eman da, baino sakonkiago.

Estatu espainiarra 86-an sartu zen 83an hasi zen ekonomi kapitalistaren berreskuraketan eta atzerapen hau igoeraren trinkotasunaz orekatu du (EEE-ak baino 1,5 puntu gehiago).

Hala eta guztiz ere, "renta per capita" delakoa komunitarioaren %75a besterik ez da. Aipaturiko igoera izan arren, langabezia, aktibitate eskasa, geldialdi luzea, inbertsio-hazkuntza ezezkorrak adierazten zuten eta dute EEE-ko beste estatuak behar ez zuten garapen beharra.

Era berean, ezin da ahaztu kanpoko faktoreek duten garrantzia Estatu espainiarrean garai honetan: petroleoaren prezioak %50a baino gehiagoan egin duen beherapena, beherantzako prezioak energietan, klimatologi oso aldekoa, komertzioaren berezko zabaldundea, dolarraren devaluazioa,... azken urteotako emaitzen atzeko oinarritzko faktoreak ditugu hauek.

2.1.- Lehenengo fasearen balorapena

Beraz, LPSeko 20 ataletatik 11 etan Gobernu bada mintzale BAKARRA eta beste 9etan bere presentzia beharrezkoa bada erabakien bermatzaile bezala, argi eta garbi gelditzen da patronalaren inplikazio skasa akordioetan. Berauek askotan ez dute ezertarako balio eta ez dute betetzeko aukerarik izaten.

- Soldaten inguruan akordiorik eza, horrela lanzentruetako negoziaketetan ez da BAHIKUNTZA KONTZERTATURIK izan.

- 3.000 pezetako igoerarekin (23.000 pezetatik 26.000 pezetara) ez da lortzen 92an L.S.M.aren azpitik egongo ez diren pentsioak, horretarako igoera eman den igoera baino lau aldiz haundiagoa behar lukeelako izan urteko.

- ELA-STVren joku bikoitza: Euskadin harreman harremanetarako ingurune autonomoa eskatu du eta aldi berean, Madrilen emandako prentsaurrean, KONTERTAZIO sozialean parte hartzea eskatu zuen.

- Enplegatu publiko eta pentsionistekiko Gizarte Zorra hobetzen bada ere, Gobernuak inflazio-aurreikuspenetan egindako akatsei esker erosketa-ahalmen galera jasaten ari gara azkeneko urte hauetan.

- Kontratuei egingo zaien kontrol Sindikalak, Cuevas Oaunak (CEOE) egindako aipamen ironikei jaramonik egin gabe, ez du lortuko behin-behineko kontratuen arazoa konponterik, enpresariak bai dituzte ia 20 kontratazio-mota eta edozein aukera dezakete beren etekin gehien kostu gutxienarekin lortzeko helburua kaltetu gabe.

- LSM 50.010 pezetatan ezartzeak 89.ko KPI-aren %0,23aren igoera suposatu badu ere (Gobernuaren alde bateko agindua) Sindikatuek aurka ageri dira, azken hamar urteotan KPI-ari dagokion %20ko desfasea kontutan hartuz, logikoa dena, bestalde.

- Gizarte-babesari buruzko akordioei dagokionez, nekazal subsidioa aipatu behar. Beronek zera ukituko du: kontratazio sistemak, 52 urte baino gehiagoko langileentzako subsidioa, etab. Guzi honek, zehaztaperen faltaz gain, ez du Hego Euskadiko enplegu kopurua mantentzen lagunduko.

Kontzertazio Sozialaren lehen fase honetan ez dira honako hauek kontutan hartu: lanaldia, ordu extrak, lan eskasia, kontratazio-prozedurak.

2.2.- Bigarren fasea, Kontzertazioa

Martxoan UGT eta CCOO Sindikatuek lehenengo fasea bukatutzat eman eta bigarrena planteatzen dute, bestearen jarraipena izango dena.

Eztabaida gai bezala honakoak:

- Langabeziaren babesa. Sindikatuek onartu zuten Lan Ministraritzaren eskeintza: ~5 ur-

tetik gorako langabetuei mugagabeko subsidioa eta iraupen luzekoa. Zifrak zehartu arte ez dugu hitzarmen honi buruzko baloraziorik egingen.

- Kontratazio Sistemak: Gobernu eta Sindikatuen arteko eztabaida Patronalak negoziaketan egon behar ote duen edo ez izan zen. CEOEk ez duela enplegurik sortuko eztabaidatik at utzi ezker mehatxu egiten du. PSOERI esker CEOE negoziaketan gelditu zen.

- 35 urteko kotizazioa duten 60 urtetik gorako langileentzako jubilazioa eta lanaldiaren murrizketa ez zituen Gobernuak aipatu ere egin. PSOEk 82ko hauteskunde programan agindu zuen jubilaziorako adina murriztuko zuela bi urtetan legealdi bakoitzean. Horrela bada hemen azpimarratu behar da PSOEn hitz jatea.

- Ordu extre buruz lortu zen hitzarmena, hilabete eta urteko muga erabaki ez bazen ere, egunean gehienez 2 bete daitezkeela ebatzi zen. Hau UGT eta CCOO sindikatuek LPSean egiten zuten planteamenduen aurka dago, ohizko ordu extremen aurka eta behin-behineko kontratuen bidez ordezkatzeari proposatzen bait zuten.

- LAN EGUTEGIARI dagokionez, enpresarien esku dago eta langileek gainbegirada botatzea besterik ez dute.

Guizti hau Kontzertazioaren bigarren faseko 8 hilabetetako diskurso luze batean gartzen dute, Gobernuak konszienteki luzatzen duelarik ez bait dio HELBURUAREN izaera eman nahi, baizik eta BIDEARENA. Paraleloki PROGESUAREN ALDEKO PAKTU bat aldarrikatzen du 93.ko Urtarrilaren lehen indarrean sartuko den Europear Merkatu Bakarraren aurrean burutu nahi dituen garbiketarako prozesu ekonomikoan aurrera eramateko.

Norgehiagoko Paktu honen aurrean sindikatuek bere ezadostasuna agertu dute, beraien ustetan inolako konpentzariorik gabeko soldaten politikaren modarizio bat besterik eskatzen ez delakoz.

Esandakoari Hauteskunde Sindikaletako CCOO-en aurreabisuak direlata, CCOO-

UGTren arteko haustura gehitzen badiogu, Kontzertazioaren bigarren faseak optimismo gutxi emanen digula dio panoramak, usteka-beak salbu.

LABen ustetan langileriak Gobernuari "giro soziala" eskatzen jarraitzen du, Abenduaren 14-eko eskakizunak zutik diraute, eta estatu mailako Negoziazio Kolektiboak ez diola ez euskal langileari mesederik egiten ez eta Hego Euskadiko Lan Harreman Autonomoek irabazteari ere, aldarrikatzen du langileriak.

3.- NORGEHIAGOKO PAKTUA.

Gobernuak "Norgehiagoko Paktu"aren gainidazkiaren azpian aurkeztu nahi dizkigun neurri ekonomiko paketeek aztertzeko eta bere lekuan jartzeko, atzera begiratzea komeni dugu. 1.977an sinatu ziren tristeki famatuak ziren "Moncloako Paktuek". Krisi ekonomikoa bertan behera uztea burgesiaren interesen alde eta Kapitalaren etekinen tasa igoera onartzea zen helburua. Plantillak urritzea; ongizatearen Estatuaren desmantelamendua (batez ere Segurtasun Sozialaren zenbait atal garrantzitsuenetan -langileriaren garaipen garrantzitsutzat eduki zituztenak-); lan-kontratuen prekaritatea; soldaten erosmen-ahalmena laburtzea; e.a.en antzeko gaietan langileen kontrako neurriak exijitzen zituen Kapitalak. Hego Euskal Herrian eragin berezia izango zituzten neurriak, industria lurreratzeraino. Gainera kapitalari koste ekonomiko-sozial gutxiena ekartzeko. "GIZARTE PAKEA" zihurtatzeko langileri moxorroa exijitzen zuten.

Jakina, ez zen holakorik esaten. Paktuen edukin antiobreroa izkutatzeke PAKTUAK BEHARREZKOAK ZIRELA TRANSIZIO DEMOKRATIKOAREN ALDE baieztatzen zen. Alderdi eta sindikatu gehienek onartu zuten. "Krisisaldia guztion artean konpondu behar dugu", "Gerrikoa estutzen badugu, enpresarioek gehiago inbertituko dute eta hola krisisalditik aterako gara" ... e.a.bezalako argudio lotsa-riekin eman zuen hasiera kanpaina intosikatzaille batek. Kanpaina horrek aurkeztutako

planak martxan jarritz etekin tasa berreskuratzea onartuz gain, ilusio, mobilizazio eta kontzientziazioari dagolionez izugarritzko galera ekarri zion langileari. Egun, argi-argi ikusten diren ondorioak. Modu honekin langileria beldurtuz, diktaduraren ondotik sentitutako ilusio orokorrak lurperatuzten lagundu duten alderdi eta sindikatuak engainatua sentiaraziz. Urteak pasa ondoren, industri desmantelatu eta nekazaritza eta arrantza sektoreek debildade serioan dauzkagu. Birmoldaketa-Berregituraketa ez da bukatu. Lan merkatuaren legea, lan koloka da, eta Euskadiren atzerapena nabaria da. Honela, "renta per-capita"-ri dagokionez 1.975an estatu mailan Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroak 2., 3., 6., eta 9.garren postuetan zeuden eta gaur berriz 15., 27., 9. eta 13.garrenean daude, Estatuako PIBen tasa hazkunde BAJUENA izanik. Estatuako ekonomiak, batez ere Hego Euskadikoak, ez ditu zuzendu bere arazo estrukturalak.

Orain Gobernu Zentrala, 1.993an martxan jartzera doan Europako Merkatu Bakarraren "desafio"arekin aurkitzen da. Horretarako diote Solchaga eta gabinetek konpetitiboak izan behar dugula. Baiezpen hori pozoziaz beterik dago langileriarentzat.

Hori da, nazioarteko harreman ekonomi-koetan "VENTAJA COMPARATIVA" deitzen diotena badago. Nazio batek abantaila konparatiboa darama egiten duen produktoa besteak baino merkeago egiten badu. Estatu ekonomia beste nazioekin konparatuz askoz ere atzerago dago. Hoen abantaila konparatiboa (Portugal eta Grecia ezik) teknologian datza. Estatu espainolak teknologikiko izugarritzko atzerapena daraman horrekin, ezin du horretan oinarritu bere abantaila konparatiboa. EEEko nazioek badakite hori, baina era berean badakite ere estatu espainolak badaukala abantaila konparatibo bat: LANESKU MERKEAN OINARRITU DADILA. Horregatik Kapitla Transnazonalak exijitzen dio estatu espainolari bere abantaila explota dezan, hau da, LAN GASTUAK BAJU MANTENDU DITZAN. Esandakoan neurri antiobreroak eskatzen ditu, horregatik ari zaigu Solchagaren gabinetea NORGEHIAGOKO PAKTUA eskatzen, orain gainera Golkoko krisia aitzak-itzat hartuz.

Lehen aitzakia DEMOKRAZIARAKO TRANSIZIOA bazen, oraingoan ere antzekoa da. Orain EUOPARAKO TRANSIZIO bera erabili nahi dute laister aurre egin beharko diegun neurri multzoa estaltzeko. Neurriak hauek dira:

- 1.- Soldaten igoera produktibitatearen azpitik.
- 2.- Lan merkatuaren fleIBILIZAZIOAN aurreratzea (behinbehineko lana bizkortzea).
- 3.- Moneta politika murrizkorra mantentzea (dirua garestitu eta lana sortzea frenatuz).
- 4.- Zeharkako zerga igotzea (BEZ). Esaten denez neurriak ekonomia "hoztuko du".
- 5.- Sindikatuei KPI bere osotasunean ez dezaten eskatu exijituko die (soldaten eromen-ahalmena gutxitzea).
- 6.- Eta osagarritzko beste neurri multzo bat.

4- 1.991eko AURREKONTUA

Gutziz murrizkorrak dira. Erabilitako aitzakia Golkoko krisia da baina egia bestea, Solchagaren Gabinetea gatazka hasi aurretik hor bait zebilen neurri murrizkorrak iragartzen. Solchagaren gabinetearen kezka nagusia Ordainketa-Balantzaren defizita eta inflazioa frenatzea da. Gastu publikoa murrizteak zera dakar: sistemak jasaten duen krisi ekonomikoa areagotzea, alde batetik, eta bestetik enplegu eta soldatei negatiboki eraginen dieten neurri antisozial eta antiobreroak. Guzti honeri gehitu behar zaio aurrekontu hoeik ez dutela dirurik bideratzen infraestrukturantz, nahiz eta euskal instituzio autonomikoekin hitzartua izan, honek berak erakusten digu zertarako balio zaion euskal langilerari egungo marko autonomia.

Gobernu espainolak, Giza arloan bere ardurari uko egiterakoan, Giza betebeharrak hauek "Merkatu"aren gora beheratan uzten ditu horrela justizia ezaren areagotze lortzen delarik eta gainera kanpoko kapitalarenpean joko-

tu beharrean dagoelarik. Azken bi urtetan bi puntutan murriztu du Estatuak Gize Segurantzaren bere partehartzea eta azken honek EIN-eko aurrekontuetan %33 behera jo du.

1.991-eko aurrekontuetako akats nabarientzak hauek ditugu:

- Nekazal Ministeritza: Aurrekontuak %23a murriztu dira. Gure Nekazal arloak porrota dagoi eta Elikagai industria Nazioarteko enpresen eskuetan dago EEE-rekin egindako itunei esker.

- Giza Segurantzaren Inflazioak %6,5-eko igoera jasan badu begibistan ago erabat murriztu dela %10,7aren gorakada. Jubilatuen egoera ez da hobetzen ere, oraindik pentsio txikiak Oinarritzko Soldata parekatutik urrun dardelako. PSOEk Aurrekontu orokorren zenbait eskubide hitz hutsean uzten, saiatzen da. Aipatzekoa da, arlo honetan, PSOEk hauteskuntetan eskeintzen zuena (Pentsio txikiak ere Oinarritzko soldata parekatua baino altuago izango zirela) berriz ere hitz hutsetan gelditzen dela.

- Bitartean militar ikerketarako, Ikerketa orokorretako %28a suposatzen du. Osasun arloko ikerketan baino 5,4 aldiz gehiago eta Hezkuntza ikerketan baino 94 aldiz gehiago. Europar borrokarako egazkinean 30.000 milioi erreko ditu Administrazioak.

5.- CCOO-UGT EKIMEN BATASUNA

UGT, CCOO eta ELAk transizio egunetatik gaur arte erakutsi duten sindikal gintza erreformistaren papera aztertu ondoren, eta krisialdi ekonomikoetako garaietan emandako desmobilizazioa hala nola Bermoldaketa industrialeko faseetan, esan behar Erreforma finkatu eta kapitalismoaren krisialdia konpontzeko bi aurpegiko negoziaketen bidez neurri gabeko laguntza eskeini diela Estatu-botereei.

Klase-kontzientzia galeraziz, ekimen sindikalak burokratizatuaz, langile-klasea planteamendu sindikal ekonomizista hutsa edo oso

hurbilekoekin despolitizatuaz lortu dute finkatua zuten helburua: Gobernuaren ekonomipolitika eta kapitalaren defentsarako solaskide bilakatzea.

ENAM deuseztatu eta gune sozio-laboralek desagertarazteko eginahal legal eta ilegal guziak egin dituzten arren ez dute nahi zutena lortzerik izan. Gaur LAB egunetik egunera aurrera doan egitasmo politiko-sindikala dugu, bere eragin kualitatibo nahiz kuantitatiboa gehituz dakusana; eta dena oztopo eta etika falta gaindituz. Hauteskunde Sindikalak baloratzerakoan izango dugu hau egiaztatzeko aukera.

CCOO eta UGT-ren sindikalgintza erreformistak orain bi urte izan zuen hasiera, LPS osatzerakoan protagonismo nabaria hartu zutelarik. Epe erdirako proposamen bati ekin zioten eta horrela langileen onerako eredu sozio-ekonomikoa lortzeko erasozko ekimen sindikala burutu zuten.

Kontzertazioaren lehenengo faseko arrakasta gutxien ondotik (komunikabide gehienek haunditu zituztenak, dudarik gabe), bigarrena negoziazio-egitasmoan geratu zen, Gobernuak oso ongi aprobetxatu bait zuen sindikatuek ekimen-batasuna haustea (aurrebisu eta ondorioen liskar elektoraletan murgildurik), bere politika sozio-ekonomikoa bultzatu zuen eta LPS-k lorturiko arrakasta tipiak kolokan jarri zituen patronalaren laguntzaz.

Une honetan, hauteskunde sindikalen kontzertiosoa argitu behar dela eta, dituzten tirabirak eta garaile ateratzearen egiten ari diren eginahalak alde batera utzita, garbi dago abenduaren 15etik aurrera UGT eta CCOO elkar ulertzera behartuak egongo direla. KES-en izango duten jokaerari buruz eztabaidak baldin badituzte ere ekintza sindikala homogeneoa aurkeztuko dute. Ados daude jada Ekonomi ministrariari aurkeztuak dioten plataforman, 1.991erako Estatuko Aurrekontu Proposamenak adierazitako politika murrizkorraren aurka. Beraiek adierazitakoaren arabera, LPS negoziatzeko markoa baztertuta dago (gai zehatzetarako ezik), ekimen-batasuna enplegu finkoaren defentsarako kanpaina bizkor batean bideratu dute, ez dute mobilizaziorik

kanporatzen eta kanpaina hau, beraz, 91ko Negoziazio Kolektiboaren ardatz bilakatuko da. Mobilizazioak gauzatzekotan, LAB sindikatuek Hego Euskadiko Harreman Laboraletako Marko Autonomoan kokatuko ditu, Baskongadetako Gobernu nahiz Nafarroakoaren kompetentzi falta azpimarratuz.

6.- 1.990.eko N. K. AZTERKETA

6.1.- N.K. aurreko ingurunea - 90.

Negoiazio kolektiboa, Gobernu eta CCOO-UGT sindikatuen arteko gorabeherak baldintzatua izan zen. Otsailaren erdi aldera hasi behar izan zen, ordurako zenbait akordio sinatuta zirelarik.

Sindikatuaren ikuspuntutik negoziazio-prozesua aurreko urteko baldintzak hobetuz hasi zen, teorikoki behintzat; alde batetik lortutako akordioak eta bestetik egoera ekonomikoa, zeintzuk, beren neurketa-indizen arabera, ezartzen bait dute azken urteotako PIB edota kanpoko komertzioaren igoera ekonomikoa.

Aipamen berezia ELAk, Hegoaldean harreman laboraletarako gune autonomoa eta Madrilen kontzertazioan partehartzea eskatzerakoan aurkezturiko planteamenduen zailzagarritasunak eskatzen diguna. Era berean aipatu behar ere Urralburuk Nafarrorako bultzatu zuen kontzertazio-prozesuaren porrota.

6.2.- Garapena eta estrategiak.

Abiapuntu bezala nabarerazi behar genuke sindikatu haundienek plataforma bateratua lortu zutela, UGT-ek Baskongadetera mugatzen zuen bitartean ELA eta CCOO-ek Nafarrora zabaltzen zutelarik.

CCOO eta UGT-ren estrategia Negoziazio kolektiboan esan daiteke ihazkoaren kopia zehatza izan dela: Negoziazio Kolektiboa kapitalizatu nahian Madrilen egin dituzte hitzarmenak, langileen partehartzea lantokitik des-

bideratuz; ELA, berriz, erabat galduta, protagonismo bila, ohizko ez dituen jarrera radikalak bultzatuz zenbait alorretan.

ELA, CCOO eta UGT sindikatuen ekintza bateratuaren helburu bakarra N.K. an gu baztertzea izan dela esan daiteke; garbi dago ez dutela lortu.

Lan-zentruetan estrategiak aztertzerakoan ez direla ihaztik aldatu egiaztatzen dugu; hauteskunde sindikalak burutu direla kontutan hartuz, bain enpresariet bai sindikatu erreformistek, eta salbuespenak salbuespen, laneko arazoak estali egin dituzte, hurbileko gaiei (jornala, lanaldia) buruzko akordioak lortu eta gainontzeko aldarrikapenak aldenduz.

6.3.- Azken balorazioa

Ezin daiteke esan Negoziazio Kolektiboa, gaur egun, beren eskubideak aldarrikatu eta bizimodua hobetzeko langileen eskuetan dagoen tresna denik. Honen baieztapen ugari aurki ditzakegu: ELA, CCOO eta UGT-ren (erreforma-integrazioa) sindikalgintza instituzionalatik hasi ea Gizartean diharduen aldaketa nabariaraino (teknologikoa, merkatua, industriaren gorabeherak, ekonomia, e.a.). Hegoaldean Euskadi-Estatua burrukak eta LAB sindikatuaren presentziak, negoziazio kolektiboaren eraginkortasuna eta indarrak bizkorzen dituzte.

Adierazgarria aurrerapen sozialak ezin sartzeari N.K. eta honen zergatia lehen aipaturiko gizarte-aldaketak ez lituzkeela mugikortasuna, ordu estrak, behinbehinekotasuna, azpikontratazioak eta horrelako hobekuntzak onartuko.

Honetaz gain estatutuez kanpotik egindako paktuen ahuleziak eta akordioen atzetik sortzen diren batzordeek N.K. indarra deuseztatzen dute.

Soldaten arloan bultzapen ekonomikoak, etekin enpresarialak, e.a. langilegoaren erosten ahalamena igotzen ari dira poliki poliki, %7 eta 9aren artean dabil soldata-banda, salbuespen batzu banda altuenetan; bota deza-

kegu 8,4eko batez beste, 89ko KPI-ari %1,5 garbia irabaziz, hau da zama fiskalik, PFEZ-rik, e.a. gabekoa.

Lan orduari dagokionez bi urtetarako sinatutako lan hitzarmenetan banda 14 edo 16 ordutara zabaltzen da, joera hau batez ere sektoretako komenioetan oso argi agertzen delarik.

Asteko lanaldia 38 eta 39 artean dabil, Alemaniako Metalgintza-Sindikatuak lorturiko 35etatik urrun, sindikalismo europearraren helburu nagusia baldin bada ere.

Administrazio arloan Baskongadetan %8a lortu zuten eta 2 ordu gutxiago (1.690/urtean), Nafarroan %10a eta 51 ordu gutxiago (1.~70/urtean).

1.990eko N.K. barruko tirabiren inguruan eta aipatutakoak alde batera, bada aztertu beharreko hainbat aspektu. Positibotzat joenezake:

1.- LABen presentziak berak sindikatu erreformisten ekintza tratatzen du, eta Estatuan baino behartuagoak ageri dira. Sindikatuaren eragina nabariagoa da, egituren funtzionamendua hobetu da, aurreko urteetako koordinazioa eta jarraipena ere sendotu direlarik, eta, lehen esan bezala, sindikatu erreformistak urduri jartzen hasiak dira eta ahalegin guzietan dihardute gu baztertu nahiean.

2.- Ihazko KPI-ren gain hasi gara negoziatzen eta hau ez da nolanhiko arrakasta izan, geu bait gara beratu betidanik aldarrikatu izan dugun sindikatu bakarra.

3.- Orokorrean ez baldin bada ere, zenbait zentruetan igoera linealen errebindikazioa bereganatzen hasiak dira, nahiz eta bere osotasunean ez.

4.- Komenio sektorialen batean ezik, 1.800 ordu/urteko lanaldiak ahazten hasi garela esan genezake eta enpresa-paktuen ia %100ak lanaldi murriztagoak jasotzen ditu.

5.- Bukatzeko, esan behar dugu gure erakundeak komenio franko sinatu dituela beste

negoziazio kolektiboetan gertatzen zenaren aurka. Negoziazioan lorturiko emaitzei begira hau mesedegarritzat jo beharko genuke.

Aipatu beharreko alde ezezkor batzu:

1.- Baldintza sozial eta sindikal guzietan egin dako bazterketa, zeinetan, salbuespen bakar batzu ezik, ez bait da arrakastarik izan. Negoziazio kolektibo honetan ez dira hurrengo gaiak begiratu: baimenak, oporraldia, ordu-pilaketa, 250 langiletik beherako entrepresetan ordezkaritza sindikala izateko eskubidea, e.a.

2.- Larriagoa Euskararena Lan-zentruetan, ez bait dugu duen garrantzia ematea lortzen, eta guretzako estrategikoa den gai honi ez diogu behar bezalako jarraipenik egiten.

3.- Osasun laboral eta Seguritate-higienezko baldintzen arloan oso gutxi aurreratu da, Europa mailan laneko istripu kopururik altuena daukagu, lan-kontratu motzeko langileak dira gehien jasaten dituztenak behar bezalako prestakuntza hartzeko astirik ez bait dute.

4.- Ez dugu lortu hainbeste entrepresatan sartzen diren ordu-estren murrizketa edo kontrola.

5.- Eginkortasun mugatuko komenioak ari zaizkigu ezartzen, ez bakarrik sektore publikoan baita entrepresa paktuetan ere.

6.- Lantegietan emakumezkoen betetzen lanpostuen defentsa berezia ez egiteak hauek bigarren mailako langile izatea bultzatu du eta, horren ondorioz, kaleratze orduko lehenak izatea ere. Salbuespenak salbu, emakumezkoen lanpostu bat izatea ez zaie berezko eskubide bezala onartzen, gizonaren osagarri bezala baizik.

7.- Bukatzeko azpimarratu behar dugu patronalaren aurrerakadak kontratazioetan, mugikortasunean, e.a. erantzun sindikal tinkorik gabe, langileen eskubideen kaltetarako daraman politika.

90.eko N.K. balantzea, bertan LABek parte-hartzea aipamen nagusia, urte askotako sindikatuko lanaren ondorioak, uzta jasotzen ari garelako litzateke.

Lortu dira borroka gehiegirik gabeko komenio orokorrak ere.

Beste aldarrikapen eta borroka batzu ere kontutan hartu behar ditugu: OSAKIDETZAKO behin-behinekoan kontratu mugatuak, POS-TALGOko pribatizazioa eta espediente irekitzearen kontra eta N.K. bera gainditu izan duten beste hainbeste aspektu ere.

Lortuko ditugulakoan gaude hobekuntza hauek datorren urtean eta gainera patronalari aurre egiteko nahi dugun indar sindikalari beste bultzada bat emango diogulakoan gaude.

7.- 1991.eko NEGOTIAZIO KOLEKTIBOA

7.1.- Helburu orokorrak

Alor guzietako indar guziak N.K. inguruan biltzea da lortu gabeko helburua N.K. prestatzerakoan.

Negoziazio kolektiboa langilegoaren indarrak elkartzeko prestatuko dugu. Hau oinarriko helburutzat badaukagu ere kalseborroka-aren bi erreferentzien artean dabilzanengana iristea beharrezkoa zaigu. Indar hauek beren interesen arabera kokatzen direnez hainbat kontraesan sor daiteke (eta sortu ohi da) eta hor dugu nagusiaren interesak eta asalaritua-renak (gestoreak) batzuetan bat datozelarik. Garbi izan behar dugu sistemak ahalik eta baldintza objektiboak ezartzen dituela langileak eta asalaritua zaku berean sartzearen. Esparru honetan gure lanarik inportanteena borroka ideologikoan datza, klaseesplotatzaileen benetazko aurpegiak agerian utziko dituen sindikalgintza egin beharrean gaude, oinarriko jarrerak finkatu beharrean, momentu honetako egoerak neutralak izatea eskatzen badigu ere. Honek ez du esan nahi gure ekin-tza aldatu behar dugunik, hizkuntza, mezua, aktibitateak, e.a. aldatzea nahiko litzateke kolektibo hauekin. Kontraesanak aurkeztuko dizkiegu, positiboago eta agresibitate gutxiagoz azalduko gara; ez dugu deskalifikazioetan sartu beharrik, eguneroko lan-egoeraren bitartek iritsi behar dugu beraienga.

Estrategi-helburuei dagokionez LABeko etorkizunak momentuko egoera aprobetxatzeko gure gaitasunarekin zerikusi haundia dauka. Langile Mugimenduaren inguruko zenbait borroketan nabari da, une puntaletan bada ere, gaitasun ezaugarririk. Gure funtsa den honi benetazko etsaiei zuzendutako mezua gehitzen badiogu, ahal den neurrian tarteko kolektiboak errespetatuz, indarrak elkartzeko aukera aurkituko gara; bestela, osotasunean etsai bezala ezagutzen baldin baditugu sozial nahiz politikoki sistemaren esku utziko ditugu.

Bai Negoziazio Kolektibo Orokorrak bai plataforma bereziak kolektibo hauek kontutan hartu behar dituzte, gureganatu edo baztertzeko.

LABek, euskal gizartean eragina izan nahi duen sindikatu bezala, Negoziazio Kolektibo hauetarako honelako helburuak ditu:

* Eguneroko erantzun sindikalari langileklaseari lagunduko dion mezu ideologikoa gehituz. Alde honetan LABek Lan Harremanetarako Marko Autonomia eskatzen du eta honen defentsarako gonbitea luzatzen die beste sindikatuei.

* Dei publikoa egiten diegu sindikatu eta partidu politikoei euskal industri-sarearen defentsarako, siderurgia, itsasokoa, papergintza, arrantza, e.a., Madrilen onartzen duten Buresalaseko desmantelamendu industrialaren aurka.

* LAB ez da egungo komenioen negoziaketetan soilik, baizik eta langileen arazo edota nahiak mahairatzen diren une guzi guzietan hala nola negoziazio alor orotan.

* N.K. an langilegoaren partehartzearen alde gaude tinko eta sindikatu-funtzio aktiboaren defentsan. Gure EZETZARIK borobilena delegazionismoari eta Asanblada dugu eztabaida, elkarriketa eta edozein erabakiaren iturri.

* Lan-zentru guzietako negoziazio kolektiboan ahalik eta hobekuntza haundiagoak lortzeko borroka, komenioen defentsa gogorra.

* LAB-ek hartzen du bere gain bizimodu baldintzak hobetzeko konpromezua, honek kutsadura, zarata, zabortege industrial eta antzeko basakerien a

Soldatapeko langileen sexuen araberako banaketari aurre egin behar diogu baita honekin batera ematen den sexuen araberako lan banaketari ere, "gizonezkoenak" edo "emakumezkoenak" bezala ezarrita dauden lanpostuei uko eginez.

* Eta bukatzeko, jarritako planteamendu eta helburuekin bat eginik ihardutea, langleei borrokarako behar dituzten tresna eta bideak ezagutaraztea.

7.2.- 1991.rak plataforma

Atal konkretuetara murgildu aurretik osotara betetzen ez dugun aspekturen bat adierazi nahi dugu.

Negoziazio Kolektibo batek ez gaitu inplikatzeko bere firmaraino bakarrik, Negoziazio Iraunkorrean parte hartu erazi egiten digu kontrolatuz eta garatuz, hurrengo Negoziazioa prestatuz; guzi honek erabateko murgiltze sindikal iraunkorra esijitzen du eta, dudarik gabe, beharrezkoa den edozein motatako ekintza sindikala patronalari aurre egiteko.

1.991.rako PLATAFORMAREN ARDATZAK

Pertsonaren eremua.- Negoziazio Kolektiboak marko guzietan komenioak jasotzen duen kolektibo osoa hartzen du, bereizketarik gabe; eta izatekotan zehartu egin behar da zeintzu geratzen diren kanpoan. Egingortasun mugatuko akordio edo antzekoen aurrean, beren erabilpenaren aurka gaude.

Denbora-eremua.- Arau orokorra bezala, urte bat. Ez du baldintza "sin e qua non" izan behar seinatzeko, zenbait kasutan komenigarri egiten bait da epea aldakorra izan dadin.

Soldatak.- Kontutan hartzen baditugu: PFEZ-GA zama gero eta haundiagoak, Gobernuaren politika fiskal eta ekonomikoaren era-

gin kaltegarria erosmen-ahalmenean, produkzio erritmoen haziera, KPI-ari dagokion estadistikek sortarazten digun mesfidantza, eta langile-klasearen bizimodua hobetzea - ~~~re oinarrizko filosofia baldin badugu, 90eko KPI-aren gainetik 2 puntu aldarrikatu behar ditugula ateratzen zaigu. Berau linealki, portzentaliki edo modu misto batez ezartzea negoziazio bakoitzaren inguruko gorabeherak erabakiko dute.

KPI + 2 erreferentziak ez du, hala ere, negoziazioetako ardatz bakarra izan behar. Gehi daiteke berdinketa, aintzinasuna, gauezko lana edo beste edonolako intzertiborik, beti ere soldatan oinarriturikoa, inoiz ez lan berdineko baldintzetan. Ardatz hauen ondoan sor daitezke komenioa gaindituko duten negoziazio-erizpideak.

Jorratu beharreko beste alor bat ondasunbanaketaren hobekuntza dugu, soldata ezberdinak kontrolatu eta berdintasunerantz abiaraztea dugu helburutzat eta honetan bildu behar dugu ahalik eta langile gehiago. Helburua argi izan behar dugu: edozein kasutan ere, onartezina dela sexu araberako desberdintasun salarialak egotea.

Berrikusketa klausulak dira 1.991eko N.K. ardatz nagusienetarikoa, KPIa negoziazio-gai izanik noski. Ez genuke inoiz sinatu behar gutxienez KPI+1 lortu gabe. Ezta lan-gatazka zapuztuko lituzketen prima-klausulak onartu ere.

Kotizazioak.- Kotizazioak benetan kontrolatzeaz gain, osagarri publikoa bilduko duen plangintza garatuko dugu. Berau indarreko legediak onartua da (giza-asegurua hobekuntzak, kotizazio oinarri eta aukeren zabal-kuntza, ...).

Pentsio-fondoak.- Ez dugu bultzatuko ezta onartuko ere, asegurantza pribatua eta geure jarrera jakiniko egoerara moldatuz abiatu behar dugu.

Lanaldia.- Helburua 1.991ean astean 37 ordu lortzea da (urtean 1.776) asteko 35era iristeko. Ez dugu 1.792 ordu baino gehiago onartuko duen komeniorik sinatuko; beti ere 1.990koei 8 ordu kendu behar zaie.

N.K. agertuko diren "ordu-boltsak" negoziazio arduradunen esku geldituko dira.

Laneko egutegia.- Talde ezberdinen arteko adostasunez burutuko da. Guk negoziazio frontea bultzatuko dugu, hain zuzen ere lan-arduenetik hasi eta lantegietan egutegiek tajua berekoak izan daitezen saiatuko dena.

Oporrak.- Akordio klausulak sartu LEI edo antzeko egoerak direla eta oporregunak ez galtzeko.

Ordu ekstrak.- Erabat baztertzeko erabakiak hartu, eta, era berean, beste sindikatuak horretara konprometi erazi. Nolanahi ere beharrezkoa da kontrol akordioak sartzeari (ad. orduen beharra eta zergatiak garaiz eskatu.). Negoziazioan, egitura-ordu kontsiderazioa murriztuko duten klausulak sartzeari.

Lanerako Ezgaitasun Iragankorra.- Gai-sotasuna edo lan istripua dela eta baja sortu aurretiko hilabeteko soldata gordinaren %100aren garantia: ezin dugu bide erdian gelditu. Hori bai, xede hori lortu bitarteko epeak hitzartu ditzakegu.

Kontratazioak: Honako hauei buruzko erabakiek hartu:

- Batzordearen (komite) aldetik kontrol neurri eraginkorrak.

- Beste sindikatuak kontratazio finkoen aldeko jarrerak har ditzaten saiatu.

- Kontratazioetan aukera eta baldintza berdina bermatu behar dira gizon zein emakumezkoentzat.

- Behinbehineko kontratazioen aurka borrokatzea.

Hitzarmenek behin-behineko kontratapeko langileei aplikatu dakizkien akordioak gauzatu, legearen babesa baidute.

Orratu ditzakegun kontrol neurriak: jubilatzeak direla kausa plantilako bajak ez onartzea; orobat behin-behineko kontratazioak; behin-behineko kontratazioak egitearen arra-

zoiak eta zergatiak galdetzea; behin-behineko kontratapeko langileek betetzen ari diren lan- ez gainezkako lanpostuak, kontrato finkope- ko lanpostu bihurtzea; L.H.tik datozen txanda- kako gazteen praktikak kontrolatzea, ...

Kontratazioei buruzko kontrol neurri guz- tiak, nagusien foko ahalbidea murrizten bada- te, eraginkorrak izanen dira.

LABetik langile guztientzako (emkumezko zein gizonezkoa) lanpostu finkoa lortzea bul- tzatu behar dugu sexuen arabera ezberdin- tasunak dituzten kontratazioei uko eginez.

Ordainketa bereziak.- Produktibitateaga- tik egiten diren ordainketa eta gehigarri bere- zikiak desager daitezten erabakiak hartu eta soldata bakarra sustatu. Aurreko hau lanpos- tuen balorazio erabaki bat dela medio gaindi- tzen bada, alor horretako arduradunei behar diren kon- tsultak egin.

Guk behin eta berriz, denbora eta meto- doen arabera soldaten zatiketaren aurka borrokatu behar dugu soldata bakarra bilatu beti eta eskala murriztuak.

Produktibitatea eta Mugikortasuna.- Lan- postuaren alde borrokan ari garelarik, pro- dukzio eritmoaren bizkortze, margutasun, po- libalantzia, zergin edo geografi mugikortasu- nari buruzko erabakirik ezin dugu hartu.

Egoera hauen aurka borrokatzeko, joera hauek mugatuko dituzten bideetara jo behar dugu. Ad.: Maila edo kategoriari ez dagokien mugikortasunaren kasuan, atal edo sailari ez dagokienenean, ... hauen gaineko erabakirik ez onartu edota, balego, murriztu.

Kasu gehienetan emakumezkoak izaten dira mugikortasunaren ondorioak jasotzen dituzte- nak, hau dela eta emakumezkoak "beraiei \ dagozkien" lanpostuetara baztertzen dituzte. Ezin dugu, inola ere, sexu arabera oinarritu- riko mugikortasuna onartu.

Euskara: - Hizkuntzak ikasteko baimen or- dainduak erdiesteko erabakiak hartzen saia- tuko gara, euskara bertan sarturik.

Enpresek matrikulazioa ordain dezaten, ira- garki oholetan, lan parte eta orrialdeetan eta kominikatuetan euskara hizkuntza bizia izan dadin ahaleginduko gara.

Euskarari buruzko batzorde bereziak ihar- dunean paratzeko konpromezua hartuko dugu, erantzunkizun osoa LAB-en gainean gera- tzen bada ere.

Eszedentziak.- Borondatezko eszedent- zikiak ondoko lanpostuaz jabetze automatikoa berreskuratzea, Langileen Estatutoetan gal- dutako eskubidea, gaurko legedian agertzen diren eszedentzia bereziak ere kontutan har- tzea, ama edo aitatasuna kasu.

Lanpostuaren erreserba.- Bere boronda- tezkoak ez diren inguruabarrengatik, arrazoi politiko edo sindikalengatik, lanera joan ezin diren langilei (presoak, errefuxiatuak...), sol- data maila berbera mantenduz.

Lan Osasuna.

1.- Enpresariak, bai jasaleak eta baita be- ren ordezkariak, lanpostuetan leudekeen arris- kuetaz jakitun jartzeko betebeharra du.

2.- Inagile guztien prestakuntzarako astia (8-12 ordu).

3.- Leudekeen arriskuetara egokitu medi- kal azterketa.

4.- EEEko Zuzendaritzaren 89/391 araute- gia bete, non 8.4 atalalak onforengo zehazten duen: "Langile batek, arrisku biziko kausetan eta berehala ekingo ez balitz, bere lanpos- tutik edo ingurune arriskugarratik alde egitea- gatik, ex du zertan katerik jaso behar eta edozein ondorio latzen aurrean babestua izan beharko du, nazional mailako legedia eta ohi- turekin bat etorriaz".

5.- Segurtasun eta Higiene Komiteko eta Begiraleko partadeei:

- Ordu sindikalak
- Enpresatik kanpoko prestakuntza
- Istripuak gertaturiko tokien gainbegira- keta edo gerta litezkeen lejuena, hala nola arrisku higienikoen inguruan.

6.- Berrogeitamar langile gutxiagoko lantokietan, langileek hautatutako Segurtasun Begiralea egongo da eta, ere berean, arabakitzeko ahalmen, hala nola, bere prestakuntzarako ta bere lana betetzeko orduak izanik.

7.- Plataforma erreibindikatzaileetan klausalak sartu beharko genituzke bai istripu-laboralen ondorioz zein arrisku higienikoen osasun kalteen ondorioz edo eta lan-stressagatik, jasalea, soldata gutxiago gabe, beste lanpostu batetara egokitu ahal izatea.

8.- Dauden emakumeek lanpostuaren aldaketa egiteko izan behar duten eskubidea agertzea, bereziki arriskuan baldin bada amaren edo jaioko den hauraren osasuna.

Legeria subsidiarioa.- Lan Hitzarmenean ez bada espreski ordenantza aipatzen eta hitzarmenaren edukiak ez badu ordenantzak biltzen dituen eskubideak agertzen, aipamen espresoa planteatu beharko da.

Eskubide Sindikalak.- Legezko gutxienezkoak hobetze eta indartzea, 250 langile baino gutxiagozko enpresetan ordezkaritza sindikalak izatekoa. Sindikatu bereko batzordekide eta ordezkaritza artean orduak piltzea. Batzarreak egiteko ordaindutako ordu kopurua gehitzea. Alor honetan, eskubideak galtzea suposatzen duen akordiorik ez dugu sinatuko.

Ekintza sindikala hobetzeko informazio ekonomiko eta finantziara bermatuko duten erabakiak hartuko dira.

Batzorde Parekatua.- Hitzarmena betetzeari buruzko kontrol eta jarraipen batzordeetan parte hartzeko eskubidearen alde borrokatzea, batzordean egon ala ez, absolutizatu gabe, kasu zehatzak E.E. arekin eztabaidatuz.

Oharra: Kontutan hartekoa da, negoziatioak hasterakoan, Lan Hitzarmenean agertzen den arau multzoa berri eta plataformetan aldaketak sartu beharra dagoela (baimen ordainduak, e.a. ...).

7.3.- Administrazio arloan lehentasuna duten edukiak

- BEHAR DIREN ONDORIOETARAKO FUNTZIONARIEN SEGURTASUN SOZIALEAN SARTZEAREN DEFENTSA: Laguntza eskubideak; eskubide pasiboak; Segurtasun Sozialean ez dauden funtzionarietara badituzten "laguntza bereziak" mantentzea. Aipatu laguntzak, beste langilei ere luzatzea.

- FUNTZIONARIEI ETA LAN-KONTRATU-PEKOEI APLIKARRI ETA HEDAGARRI DIREN AKORDIOEN DEFENTSA. Honako hau arriskuan dago ARCEPAFE.

- ZERBITZU PUBLIKOEN DEFENTSA: zerbitzu publikoen pribatizazioaren aurkako borroka. Zentzu horretan posta zerbitzu garrantzitsua da, oso. Orobat administrazio guztiak: forala, lokala, ...

- PLANTILEN AMORTIZAZIOEN AURKAKO BORROKA: Plantila horiek beharrezkoak izan eta behin-behineko kontratuek ordezkatzen dituztenean. Hau, gehienik, langile asko behar diren zerbitzu berezietan gertatu ohi da.

- LANPOSTUEN BEHIN-BEHINEKOTASUNA: Hemen, bi atal: Babesik gabeko talde hauei hizarmen-akordioak aplikatu dakizkien eta lanpostuan egonkortasuna exijitzea. Bigarren zatiko gurenik garrantzitsuenak G.B., N.G. eta POSTA lirarteke, lehenbizikoa eskumenen arloko egoeragatik, bigarrena INSALUDen transferentziagatik eta hirugarrena berregituraketagatik, hiruek sor ditzakete ezegonkortasun egoera oso larriak.

- EUSKALDUNTZEA: Barne eta herriarekiko ihardueran euskaraz arituko den Administrazio euskaldun baten defentsa.

- EUSKALHERRIKO ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LAN BALDINTZEN HOMOLOGAZIOA: Planteamendu honek topo egiten du Nafarroako, Baskongadetako eta estatuko administrazio langileen soldatak arautzen dituen Dekretak ezarritakoarekin. Hortaz, bada, Hegoaldeko Administrazio ezberdinetako langileen desberdintasunak areagotu egiten dira.

- INSALUDen TRANSFERENTZIAK NAFA-RROAN. Hasieran honako puntu hauek kezkatzen gaituzte:

- Estatuto markoak erakunde autonomoen gestio ahalmena ezabatzen du.
- Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen lan egoera zehaztu gabe.
- Transferitutako kolektibo guztien homologazioa: Lan baldintza berdinak.

7.4.- Negoziazio Kolektiboan LAB da- goen sektoreak

Negoiazio Kolektiboan aurretik bizitutako esperientziak, zenbait oker zuzentzea eskatzen digute. Oker hoiak batez ere kordinazio faltak ekarri zituen.

Sektore guztietan oraingo negoziazioan bete behartako helburuak, garrantziaren araberan:

- a) Dinamika eta kordinazioa hobetu.
- b) Interbentzioa homogeneizatzeko beha rrezkoak diren kontrateak.
- d) Interbentziorako erizpideak zehaztu.
- e) Nazional eta sektorial mailako lehenta sunezko edukinak
- f) Oarraipena.

Herrialde, vascongada edo Hegoaldeko marku sektorialak indartuko ditugu negoziazio kolektiboan, marku hoietan lortutakoa gainditzeko indarra dugun enpresetan edo kometietan inolako mespresurik egin gabe

7.5.- Herrialde arteko sektorial mailako kordinazioa

Geure ikuspuntuarengatik, nahiz eta zenbait kasu berezietan egitura nazionalatik ekin, Negoziazio Kolektibo Sektoriala bere orokortasunean hartua izan da.

Sektore bateko arduradunak elkartzea da helburua; adibidez Metalekoak. Ihazko Negoziaketan herrialdeen arteko arazoak sortu ziren eta ez ginen bere orokortasunean hartzeko gai izan.

Aurtengo Negoziaziorako helburuak honetan oinarrituak egonen lirakeke:

- a) Erizpideak zehaztea.
- b) Borroka egunetan bat egiten saiatzea.
- d) Negoziazioaren berri ematea.
- e) Lortu behartako helburuak homogeneizatu.
- f) Sektore bakoitzean jokaera nazionala bultzatu (papera, Metalgintza ...), herrialde bakoitzeko plataformak koordinatuz.

7.6.- Negoziazio jarraipenerako ardurak eta zuzendaritzarako egiturak

Gure sindikatoan jakin mina haundia sortzen du Negoziazio Kolektibo mundu konplexu horren erabaki guneak ondo ezagutzeak eta horren jarraipena zehatzak.

LAB-ek sinatutako Komenioak nola eta sinaduraren zergatia; zenbat sinatzen dituen ... Lan hau egiteko prest egotekotan bete daitekeen helburua dugu hau.

Negoiazio Kolektiborako plataforma orokorrean oinarritzko puntu batzuk aipatzen dira eta, Negoziazioan betetzen ez badira argi eduki behar dugu kontsultatu behar dugula, arrazoiak eman behar ditugula eta zein mar-kutan egin kontsultak eta erantzunak lortu:

- 1) Lantegi, tailerra ... sekzio sindikala: zailantza izatekotan, eskualdeko E.E.
- 2) Eskualdea gaiditzen badu H.E.E.
- 3) Sektoreak: sektorearen arduraduna.
- 4) 2. eta 3. garren puntuetan egitura horiek bainan zabalagoa balitz E.E.N.ak ekingo du.

Erantzun hauek ahal den bezain laister jasotzeko antolaketa egitura egokiak eratu egin beharko ditugu.

7.7.- Betebehar murrizteko hitzarmenak

L.E.-k arautu eta garatu egiten du konstituzioaren 37. garren artikuluan onartzen den Negoziazio Kolektiborako eskubidea; eta beraren-89.3 artikuluan Hitzarmena Negozia-keta Batzordearen akordioak alde bakoitzeko

(langile eta enpresa/k) %60aren adostasunaren beharra zehazten du.

Azken urte hauetan, bai entpresa pribatuan, bai Administrazioan Estatutotik kanpoko hitzarmenak edo zabalpen murriztekoak, gero eta maizago zabaltzen ari dira. Eginkizun hau, Langileen ordezkapen erakundeak %60a lortzen ez duenean betetzen da. Lortzen denean langle guztietara zabaltzen da. Hitzarmen murrizt hauek atal bereziak ditu; pertsonalak, hau da, nahiz ez izan sinatu duen sindikatuko partaideak banaka sina lezake.

Auzitegiak hitzarmen hauek onartzuz gero bi aspektutan sakontzea komeni da:

1- Aukera hau CEOE-K bultzatzen du. Hitzarmen Kolektibo orokorren baliotasuna murrizteko nahiean eta Lan Harremanetako ezregulazioa lortzeko eta halaber lantegi bertako langileen zatiketa sakontzeko. Dena dela E.E. ak jarraipena eramatea beharrezkoa dugu ea noraino diren kaltegarriak langileentzako neurtzeko

2- Baskongadetako Justizia Epai Gorenak hartutako erabakia aipatzekoa da. Honek banakako sinadura horiek ezabatu egiten ditu baldin eta lehenago sinatutako hitzarmen batean lortutako eskubideak deuseztatu egiten dituenean hitzarmen murrizt honek.

Beste Negoziazio Kolektibo mota lanbide ataleko hitzarmenak ditugu. Hauetan langile talde batek (teknikari eta administrariak.) eta enpresak sinatutako akordioak izante dira. LAB holako hitzarmenen aurka dago ponentzia honetan langile guztientzako hitzarmenak defendatzen bait dira, eta lan baldintzek arau-tzekoan zatiketa onartezina suposatzen bait du.

I.-go ERANSKINA EMAKUMEA

SARRERA

Lehenengo begiradan argi ikusten da emakume langileen problematika "existitzen" ez dela, ez maila laboralean ezta sindikalean ere. Kasu gehienetan azterketa orokorrean izkutatutako edo galdu egiten bait da.

Egun, emakume langileek jasan behar duten egoera larria sistema kapitalista-patriarkalaren ondorio zuzena besterik ez da: lan banaketaren barruan, sexu araberako lan banaketa ematen bait da.

Lan banaketa horretan, gizonezkoei produkzio arloan aritzea ezartzen zaie eta emakumezkoei lan indarraren birproduzioa. Beraz, emakumezkoen gehiengoak (%70) ez omen du "lanik egin", etxean bait daude (eta klase pasiboak omen dira).

Soldatapeko lanean ari direnak (aktiboak omen direnak) bereiztuak agertzen dira lan merkatuan:

a) Zerbitzu sektorean kokatzen dira gehienak, etxeko lanaren nolabaiteko jarraipena dena.

b) Soldatapeko lanean dauden langileen artean sexu araberako lanpostu banaketa ematen da ere. Lanpostu batzu betidanik "gizonezkoentzat" izan dira eta beste batzu "emakumezkoentzat".

d) Gizon edo emakumezkoen lanpostuen kontsiderazioa ez da bera izaten: emakumezkoentzat ez da ezinbestekoa, bigarren mailakotzat jotzen da, familiar begira "soldata osagarri" bezala, dependientea...

e) Emakumezkoek soldatapeko lanean ihardun arren, etxeko lana eta familiaren ardura dauzkate beti. Honen ondorio gisa:

- lan bikoitza egin behar dute
- lan merkatuaren aurrean baldintza desegokietan egoten dira

- ardura familiarra "abandonatzearen" sentimendua sortzen zaie kasu askotan.

1. EGOERA LABORALA

Gainbegirada bat emanez, hauexek dira aspekturik garrantzitsuenak emakume langileen egoera aztertzerakoan:

Lanpostuaren defentsa

- Langile guztiontzat lehenetsuneko gaia bada ere, praktikan ez da berdin borroka-tzen galtzen diren lanpostuak emakume edo gizonezkoek betetzen badituzte. Are gehiago, emakumezkoek ez zaie errekonozitzen lanpostu egokia izatearen eskubidea. LABetik, zalantzarik gabe, indar berdinarekin defendatu behar dira lanpostu guztiak eta, birmoldaketan aurrean bereziki, emakumeentzat ez dira beste irtenbideak onartuko (langabezia luzatzea, indemnizazioak...)

- Emakume langileak dira gehien bat behin behineko egoera laboraletan aurkitzen direnak, edota lan murgilduan dihardutenak. LABek lanpostuetan behin betikotasuna defendituko du guztiontzat eta ez dira sexuaren araberrako kontratazio mota ezberdinak onartuko.

Lan baldintzak

Lanpostuaren defentsarekin batera lan baldintza egokiak izatearen alde borrokatzen dugu. Aldiz, lantegietan sexu araberako lanpostuaz gain, bazterketa laborala ematen da emakumezkoen kasuetan.

Salbuespenak salbu, emakumezkoak egoten dira mailarik baxuen eta balorazio sozial gutxien dauzkaten lanpostuetan. Aldiz, ardura suposatzen duten karguetan ez dira ia inoiz egoten.

Egoera larriagotzen da sortzen diren lanpostu berrietan goi mailako kualifikazio edota titulazioa eskatzen delako, gero eta gehiago.

Egoera aldatuz badoa ere, emakumezkoen heziketa profesionala askoz baxuagoa izan da

orain arte. Honi gehitu behar zaio, promoziorako bideak itxi edo oztopatuak izaten direla emakumezkoentzat.

Bestaldetik, emakume langileen bazterketa maila desberdinetan gauzatzen da: diskriminazio sutiletatik ("beti izan da honela", "naturala" omen da...) umilazio eta erasoetara.

LABetik ezin dugu bultzatu sistema kapitalista-patriarkala birproduzitzeko antolaturiko lan banaketa hau.

Eskubide berdinak (legez eta eguneroko bizitzan) aldarrikatuz, lanpostu egokia eta lan baldintza hobekiak ziurtatzearen alde borrokatu behar dugu.

Berdinatasunaren alde bai, baina lan merkatuaren aurrean abiapuntu ezberdinetan daudela emakume zein gizonezkoak ohartzuz. Zenbait kasutan bereizketa positiboa egitea izango da bide bakarra ezberdintasunak orekatzeko.

Ardura familiarra duten emakume langileen egoera

Arestian aipatu den bezala, emakume langileen egoera larriagotu egiten da honelako kasuetan, zeren eta soldatapeko lanari etxeko lana eta etxekoen ardura gehitu behar bait zaizkio.

Soldatapeko lanean ihardun arren, ardura hau beti ere emakumezkoena bait da, berez.

Egoera hau erabakiorra da emakumezkoentzat, lan merkatuaren aurrean eta sozial mailan ere, lan bikoitza (edo hirukoitza) suposatzen duelako.

LABetik, ardura horren sozializazioa aldarrikatzen den heinean, norberaren erantzukizun eta konpromezu maila (kolektibo zein pertsonala) sakonki aztertu beharko lirateke.

2. LABen JARRERA

Euskal emakume langileen bazterketa labora zein sindikalaren aurrean, lehenengo eta

ezinbesteko pausua zapalkuntza honen garrantziaz ohartzea da, sindikatu mailan aztertuz eta lantegietan zabalduz.

Arazoa sozio-ekonomikoa bada, irtenbideak ere (orokorrak eta zehatzak) sozialak izan behar dira. Hau ez da batzuk pentsarazi nahi diguten bezala "emakumeen arazoa" eta erantzunkizuna, beraz, guztiona da ere.

Negoiazio prozesuetan egoera bereziak aztertuko dira eta ezin izango dugu bazterketa hau "natural"tzat onartu ezta egoera hau mantendu edota birproduzitzen laguntzen duten hitzarmenak sinatu, aldiz, neurri zuzentzaileak proposatuko dira egoera zehatzen aurrean.

Lantegietan ere jarrera edo joera baztertzailerak salatu eta irtenbide egokiak bilatzen saiatuko gara, beste langile eta sindikatuak inplikatur.

Kontzientziazte eta heziketa kanpainak bideratzea ezinbestekotzat jotzen dugu, bai sindikatu barnean baita langile guztien artean ere.

Hasteko, egokia litzateke hizkuntza ez markatua erabiltzea eta ez, orain egiten den bezala, den dena maskulinoz esan edo idatzi.

II.-go ERANSKINA EUSKARA

Gizarte batean bi hizkuntza daudenean ez dago orekarik, hizkuntza borroka eta norabide bakarreko ordezkapen linguistikoa baizik.

Hizkuntza izan da estatu zapaltzaileak nazio zapaldua menderatzeko erabili dituen armarik garrantzitsunetakoa.

Urteetako zapaltzearen ondoren, eta herri zapalduak bere hizkuntza eta kulturaren alde ezer egin ez dezakeelako, hizkuntzaren ordezkapena ematen da. Ez da prozesu naturala, ezarritakoa baizik. Honen ondorioz abera-

tsek, oligarkiak, beren interes ekonomiko eta politikoen arabera, ezarritako Estatuaren hizkuntza berena kontsideratzen dute.

Urteak joan, urteak etorri, Komunikabideak, irakaskuntza eta instituzioak hauen esku daudelako, herriari erdara inposatzen diote. Honela Komunitate elebiduna haundituz doa eta lehen elebakar erdaldunak sortzen dira. Erdera, zapaltzen gaituen kulturaren ardatz bihurtzen da, eta, une berean, euskal kulturaren deskulturatzaile, herri-hizkuntza bihurtu arte.

Gaur egun, gure herria desagertarazteko, gure hizkuntza galerazteko, sistema politikoa aldatu denez, metodoa ere aldatu egin da: inposatu nahi eta inposatzen diguten elebitasuna.

Komunitate euskalduneko biztanleak euskara eta erdara erabiltzen ditu. Komunitate erdalduneko biztanleak, ordea, erdara bakarrik darabil. Euskal Herrian biztanleria osoak erdara darabil eta erdarak era guztietako funtzioak betetzen ditu. Biztanleriaren sektore txiki batek darabil euskara eta nizekuntza honek oso funtzio txiki batzu betetzen ditu.

Euskara erabiltzeko baldintza asko bete behar dira eta horietako bat betetzen ez bada erdara erabiliko da. Hortaz, gaur, Euskal Herrian, euskararen erabilpenaren maiztasuna ia hutsaren parekoa da eta, erdararena, ordez, ia erabatekoa. Eta euskararen erabilpen murrizt honek erakusten digu zein izanen den biharko euskararen etorkizuna, gaurko erabilpenak biharko iraupena baldintzatzen baitu.

Hizkuntzen arteko borrokaren emaitza da hizkuntzen arteko egoera diglosikoa, hau da, ordezkapen-prozesuaren ondorioz, hizkuntza bat nagusituz bestea minorizatua utzi duena. Dinamika horren konponbidea ez da, beraz, elebitasun osoa ezinezkoa, bestalde- hizkuntza minorizatuaren berreskurapen osoa baizik.

Berreskurapen osoaz mintzatzen garenean hauxe esan nahi dugu: euskara Euskal Herri osoaren hizkuntza komunitario eta euskaldun bakoitzaren hizkuntz pertsonal bihurtzea.

Euskarak jasan duen eta jasaten duen ordezkapenprozesuaren kontra berreskurapen osoaren -pertsonearen, sozialearen eta nazionalaren- politika eskatzen du, benetan euskara euskaldun guztion hizkuntza bihurtzeko. Elebitasun osoa ez da euskararen plangintza politiken helburua, helbidea baizik.

Lan-munduari dagokionez: lanak sortzen duen produktzioa erdaraz egitera behartu dute euskalduna. Gaztelania eta frantsesa hegemoniko bihurtu dira arlo honetan, aukeratze honen azpian interes batzu, kapitalaren interesak, hain zuzen, daudelarik. Euskal oligarkiak eta burgesiak gaztelania eta frantsesa aukeratu dituzte beren harreman ekonomikoetarako. Hizkuntzak batasuna eman dio merkatuari eta inguru honetan euskara traba besterik ez da kapitalak ahalik eta emankorren nahi dituen harreman ekonomikoetarako. Multinazionalak hizkuntz batasuna azken muturreraino ari dira eramaten mundu guztian ingelese inposatuz.

Lan-mundua euskalduntzeko benetako interesa izan dezakeen klase bakarria langileria da. Langileriak dependentzia guztiak astindu behar ditu, baita dependentzia linguistikoa ere.

Badakigu euskararen erabateko berreskurapena prozesu sozio-ekonomiko luze baten ondorioz lortuko dela baina tenorea heldu da lantoki guztietan lehenbiziko urratsak ematen hasteko. Langileen artean euskararen aldeko eritzi kolektiboa sortzeko ahaleginak egin behar ditugu. Lan-mundua euskalduntzeko ezinbestekoa den azpiegitura eraikitzen hasi behar dugu.

Aurtengo hitzarmenetan euskarak bere presentzia izan behar du, deus ez dagoenetan lehen urratsak ematen hasi eta, zerbait dagoenetan urrats berriak eman.

Izan, badira esperientzi batzuk: Plangintza orokorra egin duten enpresak, enpresa bera kargu eginez. Klaseak lanordu barruan sartzen dituzten enpresak. Klase erdia enpresaren gain eta bestea langilearen gain. Hilabete-ko asistentziaren ordezkari opor egun bat ematen duten enpresak. Barnetegietan parte hartzeko exzedentziak ematen dituzten enpresak, e. a.

Dena dela, aurreko puntua ondo lotzeko komeni litzazuke guztioi koordinazio serio bat mantentzea, hau da, Euskararen Aholkua- ren partaideak eta zuek, kasu bakoitza estu- diatu ondoren plataforman puntu hori ahal den hobekiena aurkezteko.

Argi eta garbi dago euskara ez dela borroka sektoriala borroka estrategikoa baizik. Hortaz, azken helburua zein den jakinik, epe labur eta ertaineko helburuak zehazten hasi behar dugu gure arloan ere berreskurapen osoaren oinarriak jartzeko.

Ia aurtun guztion artean urrats serioak ematen hasten garen.